

## **UDA HONETAN, SAIHESTU LAPURRETAK ZURE ETXEAN**

*Oporren aurretik ezezagunean aurrean ez esan noiz irten eta itzuliko zaren, ez eta bidaiaren gaineko beste ezer ere (erabiliko den ibilgailua, oporretarako aukeratutako lekua, etab.).*

*Agindu senide edo auzokoren bati heltzen zaizun posta hartzeko, ez zaudela nabaritu ez dadin.*

*Agindu senide edo auzokoren bari pertsianak zabaldu eta ixteko, etxean "bizia" dagoelako sentsazioa emateko. Era berean, programagailuak ere erabil ditzakezu, egongelako edo sukaldeko argiak piztu eta itzaltzeko, eta, horrela, efektu bera lortzeko.*

*Lorategia duten etxeetan, zuhaitz eta zuhaixketako adarrak inausita eduki, lapurrak ez daitezen ezkutatu edo sartu.*

*Ez utzi etxeko giltzarik lanpasaren azpian edo lore-ontzietan... ezkutatuta. Seguruagoa da kopia bat konfiantzako auzokoren bati edo sendereen bati uztea, beharrezkotzat joz gero.*

*I txi sarrerako atea giltzari buelta bat baino gehiago emanda, "txartelaren" metodoa rehabilita ireki ahal izatea saihesteko.*

*Egiatzatu etxeko ate nagusiaren eta zoruaren artean ez dagoela tarterik, palanken erabilera saihesteko.*

*Ez utzi objektu baliotsurik (koadroak, bitxiak, eskulturak, etab.) denbora luzean jenderik bici ez den etxeetan.*

*Konfiantzako pertsonaren bati esan non aurki zaitzaketen, beharrezkoa balitz.*

*Ez utzi oharrik atean, ez mezurik erantzungailu automatikoan, bertan ez zaudela esanez.*

*Garrantzitsua da oporretan ez doazen pertsonak auzokoen etxeetan, erkidegoetan edo urbanizazioetan izan daitezkeen mugimendu arraro edo zaraten berri ematea.*

*I kuskatu postontzia, telefonotxoa edo etxeko atea, lapurrek zein etxetan lapurtu behar duten bereizteko egiten dituzten marken bila (lerro horizontalak edo bertikalak, esate baterako). Markaren bat badago, ezabatu edo egin ahal dena irakurtzeko modua izan ez dadin.*

*Erandioko udaltzaingoa: 944671111  
SOS DEIAK: 112*